

# EUSKALDUN-BERRI BATEKIN ELKAR-IZKETA

Eglazko «prantxes-euskaldun» batekin topo eginga dut Joan den igandean marxismoaren 5.ean. Auxe bai dala zifreko eta benetako «euskaldun prantxera», beste era batera esanda. Au dala da, adiskide berri au bai; beste asko, ordea, naizta deitura bikoitz ori eman askotan, bietakoren bat dala gertatzen zaigu: aldiz euskaldun, aldiz frantziar.

André Levéque, bere izen-abizenak. Jaioterria Lille, uri ospetsua. Ikaslea da. Urtez, berriz, gaztea: «praleen dozena» esan oi zalona bapikaztera ez da irixten; bi «pralee-dozena» tara ez da oraindik igaro.

Guzitarik itzegin dugun arren, gure izkuntza eta gure erria izan dira mintzaldi gertatzen: auzen inguru-biran korapillatu ditugu bion izketa eta iritziak; geienik-bat beintzat.

Ekin dezaiogun elkar-izketari. Aurrera, ordea eta besterik baiño leen, badut aitort bearrik: irugarren erako elkarizketa edo elkarrekilako jarduna dugula au, alegia. Asi, aurrez-aurreko alde-erantzunetatik; jarraitu Loloiako Erri-irritze egindako jardueraz, bigarren; eta azkenik, beste bien bilduma idatzirik eta laburrago.

—oOo—

—Noiz etorri zifan Euskalerrira? A.L.—Iragan den azaroen.

—Zer errian zauden?

A.L.—Hazpamen egon naiz. Obeki erranda, Hazpame onoko Gerozieta'n. Ipar aldeko Euskera ikasi dut au. Gero, Arantzan'u egun batzuz. Urrera, Usurbilen.

—Eta etzo-gaurerat, berriz, Aizarnan. Baiñan zergatik du zuzu alda otera?

A.L.—Fixkabat ikasi dut Iparreko Euskera. Orain, Gipuzkoakoa entzun, ulertu, ikasi...

—Eraz ikasi al duzu Euskeraz? Gutxienez ere, erraza iruditzen al zaizu?

A.L.—Ez da zailla. Arras zuzena da, legeak zeatz betetzen ditu. Adibidez, frantzeraz ez da orrelakoa; gauza bitxi gelago ditu.

—Aria artuz gero, erraza dala uste duzu, beraz, gure Euskera. Lojika zuzena darabiltzala, alegia.

A.L.—Bai orixe.

—Baiñan zaillasuna ere arkituko zenituan, noski. Esaitzazu batzuk.

A.L.—Zaillasun bat, «euskaldun-berria» danarentzat, bereziki, au da: alde batean era batera erraiten dala; besteetan bestela. Orrengatik, era bat baiño gelago ikasi bear ote iri zailla da.

—Zer alde arkitzen diezu Lapurterari eta Gipuzkerari?

A.L.—Nola gerta! Lapurtera ikasi dut geienik. Ala era, niretzat, Gipuzkeraz errazago da aditza: Al-tunaren atzalpeneri esker. Bestalde, izen-jokukaz zaillago eta nekagarriago zaizkit emengoak. Errazagoak zaizkit Lapurteraz.

—Eta itzel dagokienez, zer iritzi duzu?

A.L.—Gutti goiti-beeti, eun itz

arkitzen ditut nik oraingoz, Lapurtera eta Gipuzkeraren artean... bereziak... ez-berdiak. Eun itz aukeratu bateratuz gero, erraz ulertu dai- tekze biak batera.

—Beearezkoe dala uste duzu, beraz, Euskera bateratzea; ez al da ala?

A.L.—Bai, bai bearrezkoa. Aurtzarotik ez dakitenentzat bereziki, ikasten asi berrirentzat alegia.

—Ezin uka bearrezkoa danik eta bear-bearreko dugunik. Oartuko zera ordea, ez dala guziz berdin —ez egoera eta ez jarrera— txikitatik dakitenentzat. Izan ere, batzuentzat guzia berrl dan bitareren, besteentzat barne-barnean itsatsirik dararamaten zerbaite bizi da. Nola-nal ere, gure izkuntza bateratzeokoa, bai al dakizu guretzat eredu izan daikekan izkuntzarik?

A.L.—Bai, nere uestez, Finlanderra. Berriz ere, nola gerta! Ezagutzen dut finlandera eta orrengatik izendatzen dut. Atzizkien bidez eta bi itz elkartuz landu dute finlandera. Eta Euskerari ere gaitasun bera arkitzen diot.

—Eta zergatik aututzen duzu bide ori?

A.L.—Era orretan sortutako itzak ulergarri diralako erriarentzat, nere uestez.

—Egia esan, ni ere iritzi ortako nauzu bete-betean, itz guzi-guzletan ezin daikekan arren.

A.L.—Jakiña; joera adierazten dut, ez itz orotan berdin jokatzea.

—Arentzazun egonalditxo bat egin duzenez gero, izkretatu al zera A. Villasanterekin?

A.L.—Bai, egin dugu elkar-izketarik.

—Asmatuko nizukela gauza bat, uste duz. Ziur aski, A. Villasante ez dala iritzi ortakoa. Latin-izkuntzaitik datozen itzak oparo artzeko joera edo zaletasuna nabaituko zenuola, alegia.

A.L.—Egia, ezin uka dezaket.

—Beste bereizkuntzarik arkitzen al diezu Lapurterari eta Gipuzkerari?

A.L.—Bai. Itzgegiteokoa, errazago ulertzen dut gipuzkera; nere uestez garbiago oagutzen edo erraiten dituzte itzak.

—Bizkalera ikasteko asmorik? Gutxienez ere, entzuteko asmorik bai al duzu?

A.L.—Pozik egingo nuke. Ezin dut, ordea, orain. Geroago...

—oOo—

—Beste gauza asko ere arrotu ditugu bion artean. Tamelez, ordea, idatziz ezin adierazi guzi-guziak; erri-arazoak, batik-bat. Izkuntza-arloan bertan ere alpatu ditugu zenbait izkuntzari ospetsu: Sauvsure, Chomski... Bi uek baiño aurrerakoiago eta gure adiskide berriari gozokoago zailona, Jakobson.

Orra, gure erriak eta gure izkuntzak adiskide jator bat gelago urrutietan. Zergatik ote da, goi al ditek beera etortzen dirala eta ez beetik gora?

Gaztañaga k

# ESTRUKTURALISMOA ETA KONDAIRA

(Larresororen liburuaren inguruan)

Marxisten kondaira-materialismoa es da zientifikoa, mitoa baizik (or. 76).

Garateren liburuagatik esana berriztatu behar da Larresoro edo Txillardegiren Hlzuntza eta Pentsakerari buruz ere: marxismoaren kritika zuzen egin dute. Ehun urteren buruan ez da agian zaila edozein teoriaren flakiki aurkitzea, teoria hura marxismo izanda ere. Harrigarri bakarra, guzti hontan, okerrik ezin ikusi duen marxismoarekiko atxikitutasun itsua da.

Halakoan marxismoa bene-benetan mito hutsa da. Gure arteko marxismoa oraindik fase hontan aurkitzen da itzuraz.

Gero ez Garateri eta ez Larresorori egoki irudituz aia atzerapen horri gain harteko marxismoaren posibilitadeak eta hartarako neurriak aipatzen haritza. Hauentzat marxismoaren egin duela dirudi. Ta hein batetan halaxe da.

Baina hein batetan.

## METODO ALA MUNDU IKUSKERA?

Estrukturalismoa zer da: metodo ala mundu ikuskera (bestela esan, filosofia)? Estrukturalistek bere ere ezin ongi asmatu dute biok bereretan. Eta bidezko da. Adibidez: esan bez Levi Straussek nahi baino, «estrukturalismoa ez da filosofia, atzertidea baizik». Baina bere mundu ikuskera —funtsean franko pesimista— nabar nabarmenki estrukturalismoari josita dago. Aregio: halako batetan marxismoaren ondo-ondoan uesteko du bere burua, noizpait egiten zuen moduan. Berriki, halare, marxismoetik oso urrun dabilera esan du, marxismoa ideologia dela-ta (Eta hontan oso zuzen dago).

Levi Straussek bere burua situaterakoa hain urte gutxiren barruan duen diferentzia hau, eta estrukturalismoan metodoa eta filosofia bereziteko zaillasuna, elkarren giroan daude. Hau argitzea lehendakira izan behar da.

Lehenengo Mundu Gerrarrekin, lehendik ere krisian zegoen XIX mendeko historismoak erabat lur jo zuen. Metodo berriak eta mundu ikuskera berriak hasi ziren erretzen. Sentitiera eta mundu ikuskera zaitikoa jakin batek sortarazten du metodo estrukturalista, gatazka begiztatzeko tankera hau; eta gero estrukturalismoak mundu ikuskera huraxe garaituzpenera jaso eta osatu. Elkar egin dute metodoak eta filosofiak. Horrengatik dago Txillardegiren hitzurrean: «Ikuspuntza aldatu dugu, hausnartzea, jakintza-salietan maiz gertatu ohi den bezala. Galderak aldatu ditugu beraz ere».

Estrukturalismoaren ikuskera, aztertze metodoa (neopositibismoa edo fenomenologiaren bezalaxe), marxismoarena baino askoz hurbilago dagokio zientzia positibismoari: alferriko da biok metodo teoria heinean elkarren lehian jartzea. Marxismoa kondaira osaren teoria bat da, aurrerapen historiko osarena hain zuzen, eta ez bererakuntza zehatz eta positibismoena, Azkeneko hontarako marxismoaren ekarria aspaldi pasatu bait zen zientzia burgesetara ere: soziologia, adibidez, edo kondairagintzara.

Baina azkeneko estrukturalismoa ere kondairaren antifilosofia bat bilakatua da. Kondairaren «hurburrik» onartzen ez duen kondaira filosofia pesimista. (Hurburu hori onartzen dute filosofiek, aldiz, ez dute zientziarengatik egiten, gizonaren joera, sakon bati jarraiki baino). Hori garbi dago ta marxistek berehalaxe hauteman dute. Horrengatik da Sartrek baderitza ere: «Estrukturalismoa ez da Marxen kontra burgesiak altxa zezakeen azken presaburua besterik» (Estrukturalismoarekin nekez sor ditekealako kondaira xede baterarantz aldarazteko edo «iraultze» dinamikorik, eta bai errazago etsipena).

Baina problema, Sartrek adierazi baino sakonago delat, Althusser, Sebago, eta marxista estrukturalistek erakusten dute. Batek estrukturalismoaren kontra marxistak eta Sartre bezain kartsuki ibili diren kristauek ere, eta ez zen Marx burgesiarendandik habestegatik izango. Ongi ohararazi du hori L. Goldmann: kristautasuna, izan ere, ez da «salbazioaren kondaira teoria» besterik, eta diakroniatik bizi da. Arrozioa, izan ere, kondairaren ukazio estrukturalista beste ezertan ez dago.

Hona Txillardegik ere argi eta garbi: «Kondairaren teoriak orori, horretara, alienazio hutsa dira. Leur rôle —dio Lacanek gaitokio— est assez mince pour le progrès scientifique» (10). Alegia, kondaira teoriak ez diotela aurrerapen zientifikoari gauza handirik laguntzen. Eta Txillardegik hau batez ere Hegelen eta marxismoaren kontra erabiltzen du: «Kondairaren Azalpen Logiko Bakarrik ez dago: AZALPEN BAKAR ETA OBJETIBOAREN ZENTRO MITHO HUTSA DA. Ez dago, hitz batez, kondairaren azalpen «objektiborik». Marxisten «kondaira-materialismoa»-ez da zientifikoa, mitoa baizik» (76).



Eraso hauk berdin-berdin egin zitzaizkiokean kristautasunair (Txillardegik inoiz eginak ditu) eta kondairaren progresio filosofia edozeini berebat. Kondaira filosofia marxistak kristautasunaren eskema bera du, ezagunki: marra edo linea aurreragiareana, heburu batetara heldu arte.

Gauza nabarmena ari da gertatzen: gaurko ideologi eta filosofi-sistimen arteko guduak fronte batetan neopositibistak, estrukturalistak, logiko-matematikoak, e.a. bateratu ditu. Beste frontalean kristauei, marxistei, esistentzialistei, e.a., behinokoa «etsai marharrei» elkar harrazazi, pentsabide berrien kontra.

Zer esan guzti hontaz? Estrukturalismoak arraio osoa du kondaira-filosofia heburudunak —kristau, marxista ala hegeliar izan— zientifikoarek ez direla esateko. Ez dira. Eskera haiek ez probaterik eta ez egiztaterik dago. Eta Txillardegik segurasuki baietakoan setatzen diren marxistak zituen buruan. Haien kontra nik ere horixe dena eta gehiago esango nuke: mundu ikuskera edo filosofia eta zientzia nahastan dituzte, Gallelei kondatatu zutenek bezalaxe.


Larri-larrian pentsabide haiek —marxista ala kristau, berdin— alienazio eta mito direla ere onartuko nuke. Baina ez hitz hauen esanahi korrietan. Inola ere ez. Eta hori, kristautasunetik nahiz marxismoetik udanagatik ezertatzen dut.

Alegia, ikuskera horiek berez diren hortan erabiltzen diren artean, zientziaren lekuan sartu gabe (ideologikeriarrik gabe), badute beren eginkizuna. «Mitoak» duena, noski, ez gehiago. Baina huraxe bai, eta hura aski zaie. Kondairari buruz Marxek diona San Augustinek ziona bezain gutxi da zientifiko, ta horrek ez daduka zergatik inor harritu, ez Augustin-zalerik eta ez Marx-zalerik. Erdi-Haroa pasatu duen kristauek badaki sinesten duena «mitoa» delat, eta lasai-lasai bizi da. XIX-gn mendea separatu duen marxismoa ere ari da zientismoa abandonatu ta bere lekuan egoten ikasten.

Guzti hontaz laster euskeraz ere irakurri ahal izango dugun Kolakowski, argi asko emau dezaiukeala uste dut. Eta oraingoz aski.

Estrukturalismoari eta besteri jarraiki marxismoari agur egin dionaz ez dago zer esanik. Marxismo arkaikoarekin gustora dagoenaz ere gutxiago. Marxismo egiazki modernoa nahi duenari galdera zail bat gelditzen zaio: adabaki eta axaleko berrikuatzak aski ez direna garbi bait dago, nolakoa izan daike marxismo moderno bat?

Joxe Azurmendi



ERLOJU ETA BITXITEGIA

**Duarte Chopetia**

OTSAILLEAN Getaria Kalera aldatzen gera  
Getaria, 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA